

GARENAK NOLA EGIN ESATEN BAITU

Euskal kulturaren gaineko oinarri eta estrategia batzuk



Agirre Dorronsoro, Lorea
Huhezi fakultateko Sorguneak ikertegia

LABURPENEA

Hizkuntza da kulturgintzak zer bide egin behar duen esango digun elementua. Hizkuntza erdigunean jartzeak markatzen du diferentzia, kultur politika zibil zein publikoak egiteko ereduak baino gehiago. Atzera begiratzeak ere hori erakutsi digu: euskal kulturgintzaren bilakaera askotarikoak ulertzeko aldagai esplikatzaile nagusietako bat hizkuntza dela. Zehatzago esan, kulturgintzan hizkuntzari aitortzen zaion lekua: erdigunean jartzen ote den, hegemoniazko posizioan, edota adjektibo huts gisa hartzen den. Banaketa horretan oinarritu da kultur diziplina batzuen arrakastaren eta beste batzuen aurrera ezin eginaren arrazoia. Eta hemendik aitzina ere, euskal kultura geroratzeko, hizkuntza izango da gakoa eta giltza. Hortaz, gizarteak eta administrazioak, kulturgintza garatzeko estrategiak abian jartzerako, ezinbesteko izan beharko luke hizkuntzaren beraren premietatik abiatutako gogoeta eta bisio bat adostea.

Hitz giltzarriak: euskara, kultura, hizkuntzaren hegemonia, kultur politika, estrategiak

“Euskal nazioa atomizaturik dago. Bildu egin behar da. Kulturgintzak bakarrik esan lezake non bildu. Horixe da gure kulturgintza: herrigintza, naziogintza, komunitate baten berregintza”.

Joxe Azurmendi

1. NOLA EGIN, HALAKO IZAN *

Kultura sakonetik biziberritzeko giltza hizkuntza da, eredu, modu, planifikazio, eragiletza mota edota kultur politika honetatik edo hartatik haratago. Alegia, nolakotasuna hizkuntzak markatzen du, zer egin behar dugun, non kokatzen garen, zein diren gure indargune eta ahulguneak hizkuntzak esaten digu. Nola egiten dugun horrek esaten digula nolakoak garen, alegia. Hizkuntzaz ari gara. Euskaraz, euskal hitz masiatu horretaz, bere jatorrizko adieran. Euskal kulturaz, euskararen kulturaz, euskarazko kulturaz. Hirurak baliokideak.

Horixe bada, euskarak eta bere premiek argitzen dutela euskal kulturaren norabidea. Euskaraz jardutea gauza bat da eta erdaretan aritzea beste bat, baita sormen-lan kloniko berbera plazaratzen bada ere. Hizkuntzak berak esango digu sormen-lan hori nola garatu. Hizkuntza bera mezu izango da, eduki. Hauxe da Sorguneak ikertegiak kulturaren eta euskararen gaineko ikerketatik ondorioztatu duena. Eta euskararen historiak ere horrelaxe baieztatzen digu, behin eta berriro, temati: hizkuntza dela kulturgintzak izaniko bilakaera guztiak ulertzeko aldagai esplikatzaile nagusietako bat. Atzera begiratzea baino ez dago: euskara hegemonikoa izan den kultur adierazpideetan, produktuen kalitate eta zabalkunde maila handiagoa izan da. Bertsolaritza adibide. Aldiz, bi hizkuntzetan jardun duten kultur diziplinetan, gaztelania bihurtu da hegemoniko, bai sorkuntzan eta baita zabaltzeko aukeretan ere. Antzerkia adibide.

Euskara erdigunean jartzea, hegemoniko izatea edo ez izatea, funtsezko aldagaia da bi ekimenok alderatzerakoan. Ez da aukera linguistiko hutsa, hizkuntzaren aukeraketa kontzienteak hainbat ondorio baitakar berarekin. Alegia, ez da berdin gaztelaniazko antzerkiarentzako politika bat diseinatzea edo euskarazkoarentzat. Egoera, premiak, baliabideak, baldintzak eta ezaugarriak desberdinak izateaz gainera, hizkuntza espantsiboak hizkuntza minorizatua jan egiten duelako, eta, horrenbestez, kultura handiak txikia. Eredua bera ere, antzerkian eta bertsolaritzan, desberdina da: bata herrikoia, behetik gora eraikia; bestea instituzionalizatua, goitik behera diseinatua. Baina ereduaz haratago, hizkuntzak markatzen du diferentzia: nola egiten dugun horrek, nolakoak garen esaten baitu. Hau da ondo ulertu beharreko tesia: euskara kontzienteki erdigunean jartzeak beste modu bateko eredu eta kultur politika eskatzen edo ekartzen du halabeharrez:

- Euskararen premiei erantzun beharrak hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa kontuan izatea dakar.

- Euskararen egoera ez-normalizatuak profesional zein zaleak biltzeko ezinbesteko beharra du aurrera egingo badu, eta hortan datza behetik gorako ereduaren egokitasuna (zaleak elikatu behar dira sortzaileak izango badira).

- Euskara erdigunean jartzen duen diziplina orok transmisio bideak antolatzea ezinbestekoa du, transmisio naturala oso eremu gutxitan gertatzen baita.

- Euskara erdigunean jartzen duen edozein diziplinak merkaturatze eta hedatze sistema propioaren beharra du, merkatu doitu batena.

- Euskara erdigunean jartzen duen edozein diziplinak ezinbesteko du administrazio publikoarekin elkarlanean aritzea.

- Euskara erdigunean jartzen duen edozein diziplina euskararen eta euskal kulturaren eragile eta sustatzaile da eta izan behar du, eta horrela izanik, kultura biziberritzeko gune estrateragiko bihurtu daiteke.

Bost puntu horietan hizkuntza zentraltasunean jartzeak bi ondorio ezinbesteko dakartzala ikusten da: gizarte zibilarren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzeta eta merkatu doitu baten beharra. Honenbestez, zera esan dezakegu, berriro ere begirada diakronikoari helduta:

- Norberaren sormena gakoa denean, eta produkzio azpiegitura handirik behar ez den diziplinetan, askoz gehiago produzitu da: literaturan eta musikan. Azpiegitura handiak behar dituztenetan (zinema, antzerkia, ikus-entzunezkoak) urrats motzagoak egin dira. Inbertsio handia eskatzen duten diziplinei gizarte zibiletik erantzutea zaila da. Horregatik, administrazio publikoaren eta euskal kulturgintzako gizarte zibilarren arteko berdinetik berdinerako harremanen eta bisio eta estrategia konpartituen beharra begi bistakoa da. Eta horren oinarri, hizkuntza zentraltasunean jartzen duen kultur politika bat.

- Soilik merkatuari begira edo merkatutik bizi den sortzailatza duten diziplinek urrats txikiagoak egin dituzte. Euskarazko kulturak merkatu doitu daten beharra du, eta baita transmisioa sistema oso batena ere.

Berriro esango dugu, euskara kontzienteki erdigunean jartzeak modu jakin bateko eredu edo kultur politika eskatzen edo ekartzen du halaberharrez. Euskararen jokoan duguna ez da instrumentaltasun kontu bat, ez da komunikazio ekintza huts bat, ez da kultur politikako neurriak aplikatze soila, ez hori bakarrik, eta ez da hori funtsezkoena, gainera: komunitate baten ezagutza lortzea, izatearen sentimenduak zabaltzea eta maila desberdinetako eragile kontzientziatuak sortzea baizik. Ikus dezagun zer leku duen hizkuntzak kultur politiketan, eta zertan diren euskal sormen-lanen merkaturatzea eta transmisioa.

2. KULTUR POLITIKAK EUSKAL DIMENTSIONAREN ARGITAN

Norbaitek esan dezake garrantzitsuena edukia dela, mamia, mezua. Alegia, kultura, hizkuntza edozein izanda ere. Kultura, Kultura letra larriz, esaten da, hizkuntza kultura horren komunikaziorako tresna huts balitz bezala. Ipuinak izan behar du ona, hizkuntzak ez du on egiten. Kultura dela substantiboa, eta euskal adjektiboa baino ez. Beno, zilegi begi galdetzea ba ote dagoen zerbait hizkuntzaz kanpo, ba ote dagoen pentsamen-

durik hizkuntzarik gabe, demagun? Eta horrenbestez kulturarik? Hizkuntza batean edo bestean egin, gorago aipatu sormen-lan kloniko hori bera, obraren beraren barne muge-tan ere desberdin dela pentsa daiteke, hizkuntza bakoitzak duelako bere kultur tradizioa, hitzen atzeko irudi eta esanahia, mundu ikuskera, nahiago bada. Baina hori ez da orain-go gaia. Bestelakoan ere, sormen-lanaren beraren kanpo baldintzapenetatik begiratuta, argi dago hizkuntza, gure errealitate ez-normalduan, substantibo bat dela.

Gizarte zibilaz jardun dugu aurretik, gatozen orain administrazio publikoen eremura. Izan ere, hizkuntzaren zentraltasunik ez dago kultur politketan. Kultur politiken eta eus-kal dimentsioaren arteko harremana argitzeke dagoen auzia da oraindik ere. Kultur poli-tikak, kultura sailak administrazio askotan (denetan ez esateagatik) *hizkuntzarik gabe* agertu izan zaizkigu. Kultura da garrantzitsua, kultura da edukia. Politika bera gaztela-niazko eta euskarazko kulturarentzat. Kulturarentzat, oro har. Baina non geratzen da hizkuntza? Non geratzen da hizkuntza minorizatu batek beharko lukeen kultur politika? Izenari dagokionean, ez da hizkuntzarik ageri kultur politketan, praktketan, hainbate-tan bai, baina ez beti, ez baitago inon idatziz jasota horrela behar duenik izan. Beraz tek-nikari eta arduradunen euskararekiko sentsibilitatearen (edo sentsibilitaterik ezaren) mende geratzen da euskarazko kulturaren aldeko politikak praktikan jartzea. Nolabait tazituki edota inertziak onartua dago praktika hori hainbat tokitan, baina zer gerta lite-ke eragile horiek aldatzen badira? Are, zer gerta liteke auzi hau mahaigaineratuko balitz? Non eta nola geratzen da bermatua euskal kulturaren aldeko praktika hori?

Sarritan euskara sailak dirudi euskal kulturaren gunea, eta ez kultura sailak berak. Dibortzio horrek bi irakurketa maltzur sor ditzake: bata, euskaraz sortzen den kultura oro subentzionatua da, lagundua, dirutza gastatzen da horretan, beste hizkuntzetan ez bezala. Bigarrena, euskaraz sortzen dena kultura txikia da, ez da benetako kultura. Gaztelaniatzkoak, aldiz, laguntza gabekoa dirudi, eta ez da egia, eta, gainera, badirudi benetako kultura dela, kultura sailetik gestionatzen den heinean. Euskarazko kultur proposamenak euskaragintza badira, berdin esan daiteke gaztelaniatzko kultur propo-samenak gaztelaniagintza direla, sortu eragile zibilek edo sortu eta lagundu adminis-trazioek. Hizkuntzarik gabeko kulturarik existitzen al da? Hizkuntzarik gabeko kultur politikarik egitea posible al da? Hizkuntzarik gabeko kultura ez ote da ia gehienetan gaztelaniatzko kultura? Hizkuntza minorizatu baten beharrak ase al ditzake hizkuntzak zentraltasunik ez duen politika batek?

Hona iritsita, galdera edo gogoeta-gaia saihestezina da: bi hizkuntza, bi kultura, beraz bi kultur politika? Edota, zintzoago, kultur politika bakarra eta berau euskarazko kul-turan oinarritua? Euskarazko kultura zentral izango duen Euskal Kulturaren Saila beharrezkoa al da? Bai kontzeptualki (izen eta guzti), eta baita praktikoki. Jokoan dagoena euskararen eta euskal kulturaren etorkizuna da, eta mundu minorizatu horrek bere behar eta premia bereziak ditu, gaztelaniaren beharren (beharrak baditu, bederen, bere milaka milioi hiztunekin) antipodetan dagoena. Edozelan ere, orain arte hizkuntza handi izandako horiek kezkatzen hasita daude ingelesaren erasoaldi historikoaren haz-kunde bizkorra dela-eta. Eta badute motiborik, badutenez. Gu, gure txikitasun han-

dian, hala jokatzeko ikasita gaude, egun gu baino handiagoak diren batzuk baino antidoto gehiago daukagu gurean jarraitzeko. Oraingo kultur politiken kontzeptioarekin ez al du euskal kulturak ahultze bidean jarraituko? Ez-indartze bidean? Kolapsatuta? Gurean, normaltasunaren paradigma ez baita euskaraz hitz egiten duena, baizik eta euskaraz hitz egiten ez duen euskal herritarra. Alegia, pertenezia definitzeko ez dago euskararen beharrik, ez dago euskaldun izan beharrik, bai aitzitik gaztelaniadun. Eta euskaldun guztiak gara gaztelaniadun edo frantsesdun. Eta ez alderantziz.

Euskararen beraren premien baretik analisia egitea beharrezko da euskara eta euskal kultura jokoan dagoen eremu guztietan. Gure beharretatik formulatu behar dugu bisio bat. Berezitua eta lehenetsutakoa izan beharko luke euskal dimentsio horrek, eta, horrenbestez, kultura sailetik egin politikak, eta ez euskara sailetik. Nolanahi ere, euskara sailek egin duten bidearen aitortza behar-beharrezko da. Euskal kulturaren alde egin dena askotan euskara sailetik egin da han ikusi delako, ez kultura sailetan, kultur politika berezi baten beharra. Bada auzi hau argitzeko balio dezakeen ideia bat: momentuan egin ahal duguna eta hizkuntzarentzat beharrezkoa dena bi gauza ezberdin dira. Ezin ditugu nahastu bi plano horiek. Une honetan, ordea, sumatzen dugu hizkuntza politikan kultur dimentsioari arreta gehiago jartzea mesedegarri zaigula. Tokian tokiko errealtateari erreparatu behar diogu lidergotza nondik artikulatu behar den erabakitzeko. Desiragarria da lidergotza partekatura iristea, hizkuntza politikan kultur dimentsioa arretagune izatea eta kultur politikan hizkuntz dimentsioaren araberako trazaketak bideratzea.

Errealitatetik abiatuta ere, egoera normalizatu baterantz jo beharko genuke, eta horrek, kultura sailak eragile jokatzeko eskatzen du. Gogoetarako abiapuntu bat da. Bistan da, beharrezko dela euskal kulturaren aldeko kultur politika eraginkorra artikulatzea. Alegia, alde edo moldez, beharrezkoa da elkarren osagarri izango diren hizkuntza politika eta kultur politika artikulatzea. Esan dezagun, artikulazio hori balego, eredu normalizatu bat erdietsiko litzatekeela. Euskal kultura kultura den heinean bereganatuko litzateke, eta ez, horrenbestez, euskal den heinean. Hortik euskarazko kulturaren beraren behar, premia eta lehenetsunetan oinarritutako politika abiatu daiteke. Ez baita nahikoa euskal hori kulturari kendu eta asimetriko diren bi hizkuntzarentzako kultur politika berbera egitea. Hori da eragileek aldarrikatzen dutena.

3. TRANSMISIOA ETA MERKATUA

Kultur produktuen merkatua ekonomia alorreko jarduera bat da, bai, baina ez hori bakarrik. Etekin ekonomikoek gain, etekin sozialak eta pertsonalak ere ematen ditu kulturaren kontsumoak: herrigintza bultzatzen du, hiztun komunitate bateko kide sentiarazten du, kulturaren beraren garapen propiorako elikagai sinbolikoa banatzen du, hizkuntzaren beraren gurgipila elikatzen du eta pertsona burujabe eta osasuntsuak egiten ditu.

Kulturaren transmisioa eta merkatua lotuta doaz halaberrez, batak ezin du bestea gabe funtzionatu eta alderantziz: kultur produktuak merkaturatu eta merkaturatu lehia-

tuko badira, transmisio eta hedapen sistema bat beharko dute izan atzetik. Modu berean, merkatuan bistaratzen eta lehiatzen den kultura, une horretan bertan transmititzen ari den kultura bat da. Bi eremuak banatu litezke gutxi-asko bakoitzean protagonismoa hartzen duten eragileen arabera. Horrela, merkaturatua sortzaile edota ekoizle profesionalen eremua da, batik bat. Transmisioarena, berriz, zaleen eremua da. *Zale* kontzeptua bi zentzutan ulertu behar da: kultur praktikatzaile amateur gisa, eta horrekin batera merkaturatuko produktuen kontsumitzaile gisa. Hala ere, sortzaile amateurrek ere joka dezakete merkatuan, eta aldi berean sortzaile profesionalak ere transmisioan zeregin garrantzitsua dute: sortzaile huts izatetik haratago, eragile izatearena. Egiten ari direnaren kontzientzia izatea, alegia.

Transmisioaren eta merkaturaren zirkuituak, beraz, elkar elikatzen dute. Transmisioak zaleak sortzen ditu, kultura bateko kideak, eta baita sortze bidean jar daitezkeen jendea ere.

Gaur egun euskal kultur produktuen arazo nagusia merkatuan dago. Alegia, ekoizpenaren eta kontsumoaren artean etena dago. Paradoxa argia da: inoizko euskaldun kopururik handiena eta jantziarena dagoenean, ez dago kontsumitzaile nahikorik, edota euskaldun kopuruak ekarri beharko lukeen adinako kontsumorik. Eten horren arrazoiak bi mailatan aztertu behar dira:

- Gizarte mailan: euskal hiztunen komunitatea izan bada, baina ez dago nahiko trinkotua. Gaur egungo gizartearen ezaugarriak dispersioa, aniztasuna eta ugaritasuna izanik, komunitatea eta komunitate horrekiko kidetasun sentimendua lausotu egin ditu: euskal komunitatearen desintegrazio bat gertatu da azken hamarkadetan, eta horrek eragin du ez-kontsumitzea. Kontsumo ohiturak eta bideak ere aldatu egin dira, gainera.

- Kultur estrategien mailan: euskarazko ekoizpena ikusezina da, ekoizpen horrek ez duelako nahiko aukera erakuslehoan jartzeko. Garrantzitsua baita jartzea, baina baita nola jartzen den ere: zer mezurekin, zer irudirekin, zer balio erantsirekin, zer bereizgarriekin. Ez al liteke euskara bera izan bereizgarri? Euskaraz eta euskaratik sortua izatea?

4. PROPOSAMEN BAT: HAMALAU OINARRI EUSKAL KULTURGINTZARI EUSTEKO

Honako hamalau oinarri eta estrategia hauek euskal kultura geroratzeko baliagarri izan daitezke. Lehen puntuan jasotzen da ondoren datozen gainerako oinarriak. Hau da, euskaldun izatea munduan egoteko gure modua dela sinestetik abiatzen gara.

1. Euskal kultura gintza da euskarari darion kultura gintza eta euskal hizkuntza komunitatea sinbolikoki elikatzen duen sorkuntza. Berebiziko egitekoa du gure herrigintzan: funtsezkoa da euskararen gisako hizkuntza minorizatu batean bizitzeko bizinahia birsortzeko, hizkuntza komunitatearen iruditeria eta ametsa elikatzeko.

2. Hizkuntza komunitateen dinamikak ulertzen dituen jakintza soziolinguistikoa bainik ez

daiteke zentzuz eta arrakastaz pentsatu euskal kulturgintza biziberritzea. Eta horrek eskatzen du kategoriak, kontzeptuak eta sailkapenak hizkuntza biziberritzeko jakintza sakon batetik eta hizkuntzen ekologiaren paradigmatik pentsatzea.

3. Ezinbestekoa da bereiztea lurralde berean gauzatzen diren kultur eremu eta indar desberdinak. Hizkuntza komunitate minorizatu batean funtsezko papera betetzen duen sorkuntza batek eta munduko hizkuntza handienetako batean egiten den produkzio batek ez dute ia zerikusirik, ez merkatu-potentzialean, ez betetzen duten funtzioaren muinean, ez behar duten edo ez duten politika publikoan. Ildo horretan, oinarritzko bereizketa bat egin behar da hiru kategorian nagusire artean: berbazko euskarazko sorkuntza, berbazko erdal sorkuntza eta ez-berbazko sorkuntza. Hiru kategorian horietako bakoitzak tratamendu berezia behar du estrategia sozialen eta politika publikoen aldetik.

4. Berbazko euskarazko sorkuntzak nagusiki eta ez-berbazko sorkuntzako elementu batzuk osatzen dute euskal hizkuntza komunitatearen elikagai funtzioa betetzen duen kulturgintza nuklearra, euskal komunitatea erreferentzia eta helburu nagusi duen kulturgintza. Euskal kulturgintza hori oso elementu sentibera da, garrantzi handikoa hizkuntzaren geroarentzat, eta ezaugarri bereziak ditu: dimentsio askotan ahula, kontsumitzeko masa kritiko txikia duena, sorkuntzarako pizgarri bereziak dituen, gauza batzuetan nerbio kultural berezkoa duena edo *genio* kultural propioa duena, merkatu-balidintzamendu eta gizarte-eragin ezohikoak dituen.

5. Euskal kulturgintza hori, bere ezaugarri berezi horiekin guztiekin, une honetan gizarte eta teknologia aldatetek dakartzaten desafio eta aukera berrien aurrean dago. Norbanakoaren konfigurazioan aldatetak gertatzen ari dira, parte hartu eta kontsumitzeko orduan ere bai, eta arlo teknologikoak plaza berria ekarri dio kulturari. Dinamika horiek eta euskararen komunitatearen dinamikak elkarrekin gurutzatuta bakarrik uler dezakegu egoera modu zabal batean. Eta hortik pentsa ditzakegu etorkizuneko bideak.

6. Euskal kulturgintzaren analisi instituzionala edo eragile-analisia egiterakoan, oso kontuan hartu behar da euskal komunitatearen konfigurazioan gizarte-ehunak duen garrantzia. Euskaldun izatearen kondizio soziolinguistikoa berezia da, nahimen, igurtzi sozial eta borondate pertsonal berezi bat eskatzen duena, beste hizkuntza handiekiko hitzuneekin konparatuz. Ildo horretan, euskal izaerak etorkizun gutxi du anomia sozialean bakartutako norbanako estandarren eskeman. Edo eskema horretan soilik. Nolabait, giza sarea, komunitate-ehuna, eta gizarte ekimeneko erakundearen trama berebizikoagoa da, beste hizkuntza eta kultura nagusietan baino garrantzitsuagoa, euskal izaeraren etorkizunaz pentsatzerakoan. Ez dezakegu pentsa euskal izaeraren etorkizunaz inguruko ohiko gizarteetako eskema instituzional estandarrekin bakarrik.

7. Ildo horretan, kulturgintza eredu parte-hartzailea, giza sarea, gizarte-ekimen era-

kundeen presentzia, ospakuntza komunitarioa... funtsezko elementuak izango dira euskaltasunaren biziberritzean, iraganean izan diren moduan, bai etorkizunean ere. Nolabait, merkatu parametro estandarretatik haratago dagoen kultura sorkuntza eta ospakuntza humanizatzailea izateko eta birsortzeko aukera izan du eta du euskal kulturgintzak. Eta beharko du, euskaldun izateko nahimena biziberrituko badu. Jakina, merkatu parametro estandarrek ukatu gabe, horiez baliatuz, eta horietan ere ahalik eta indartsuena izanez.

8. Ildo horretan mugatuak eta desenfokatuak izan litezke euskal kulturgintzaren biziberritzeko bideak modako bide estandarretan bakarrik ikustetik sortutako estrategiak. Desenfoko horren adibide izan liteke Interneteko sare birtualean salbabidea ikusteko joera berria. Joera horiek ikuspegi sakonago eta zabalagoan txertatu behar dira. Giza sarea, gizarte-erakundetza eta komunitate-ehuna zaindu behar ditu gure kulturgintzak, etorkizunik izango badu. Eta horrekin batera, Internet eremuan eta teknologia berrietan ausart eta sendo txertatu. Gizarte-sarea eta sare birtuala. Biak, lehena oinarri dela.

9. Euskal izaeraren etorkizuna (hizkuntza nahiz kulturgintza) neurri handi batean gertuko gizarte-ehunean jokatzen da. Eta gertuko gizarte-ehun horrek duen potentziala, biziberritzea eta osasuna determinatzailea izango da euskal kulturgintzarentzat.

10. Euskal kulturgintzan estrategia eta arrakasta landu duten eremu batzuek erakusten dute, euskal kultur eremuak *ekosistema* moduan ulertuta eta modu horretan garatuta egiten dutela aurrera. Ekosistema horretan, sortzaileak sustatzea eta zaintzea, hartzailak integratzea, zaletasuna birsortzeko pausoak ematea, sortzaile eta hartzailenganak transmitioa, merkatu parametroak doitzea, eragile pribatu eta publikoen tokia lantzea, sorkuntzaren kalitatea hobetzea, eremuko eragileak artikulatzea... dena da arte bat. Modu horretan funtzionatu duten eremuek garapen berezia izan dute, eta argi erakutsi dute ez dela aski merkatu parametro estandarretan funtzionatzea, ez eta merkatu parametroak eta laguntza publikoak konbinatzea ere. Euskal kulturgintzak beste era bateko ekosistemak eskatzen ditu.

11. Hiru eremu bereiz ditzakegu euskal kulturgintzaren eragile-analisi oso bat egiteko. Batetik, merkatuaren eremua, gure ezinbesteko errealitate eta jokalekua. Bestetik, gizarte antolatuaren eremua, eta eremu horretan, nagusiki herri-ekimen autoeratu, oso modu desberdinetan gorpuztua. Hirugarrenik, administrazioaren edo botere publikoaren eremua. Euskararen komunitatearen kasuan, bigarren eremua, gizarte-ekimen autoeratuarena, bereziki garrantzitsua da. Esan liteke hortik sortu direla azken 50 urtetako euskararen eta kulturaren berreskurapenerako ardatz nagusi asko (ikastolak, kultura mugimenduak, korpusa...), eta etorkizunean ere, eremu horretan dagoela euskararen komunitatearen ekimenaren eta erdigune sinbolikoaren zati garrantzitsu bat, ahal dela erakunde publikoekin batera eta horiekiko elkarlanean. Hiru eremu horien artean, eta, nolabait, horiekiko harreman maila desberdinekin kokatzen da kulturgintza alorreko eragile garrantzitsu bat: euskal sortzailea.

12. Kultur sorkuntza maila askotan sortzen da, auzo edo herri mailako sorkuntza kolektiboetatik hasi eta sofistikazio maila handiko sortzaile profesionaletaraino. Sorkuntzaren mailakatze eta barreiatze hori da, hain zuzen, euskal komunitatearena bezalako hizkuntza txikien indargunea eta legamia. Zabaltasun horren barruan, garrantzia du eragin eta kalitate maila handiko sortzaileak. Egungo edozein komunitatek behar ditu sortzaile erreferentzialak, beren hizkuntzaren eta komunitatearen sormen-gaitasuna gorenera daramaten sortzaileak. Eragin handiko eduki kulturalak sortuko dituztenak. Jakina denez, mota horretako artistak ez dira estrategia baten bidez *landatuta* sortzen. Estrategiek egin dezaketena da lurra prestatu, sortzaileen arteko transmisioa antolatu, aukerak eskaini eta, nagusiki, sortzen dutenei erresonantzia kaxak eskaini.

13. Sortzaileari eta kultura industriei dagokienean, *merkatu doituaren* kontzeptua landu behar da euskal kulturgintzari begira. Euskal kulturgintzak behar du merkatuaren diziplina. Merkatuak informazio asko ematen du, bera da hartzailearen erabaki txikien plaza (horiek mediatizatuta egonik ere), eta galbahe horretatik pasatu gabeko ekoizpen jardunak ibilbide desegokia egiten du luzarora. Ez da ona diru laguntzen bidez merkatuaren diziplinatik babestutako kulturgintza bat, behar du merkatuaren eguneroko epaia. Bestetik, argi dago hizkuntza komunitate minorizatu, deskulturizatu eta txiki bateko merkatuak arazo bereziak dituela. Bidea merkatu doitu da. Estatuak alor askotan aplikatzen dute merkatu doituaren ideia, petrolio, energia eta funtsezko gauza batzuetatik hasi eta arlo periferikoetaraino. Hau da: arau berezi eta berariazko batzuk dituen merkatua, estatu funtsen bidezko joko arau bereziekin. Eta hortik aurrera, lehia. Euskal kulturgintzak ere lehiaren diziplina behar du, berdintasun egoera batean, eta merkatu doitu baten baitan. Kultur esparru edo adierazpide bakoitzerako doitu behar dira merkatu parametroak modu desberdin eta dinamikoan.

14. Hiru eremu horietan, bi dira estrategiak diseinatu eta egikaritzeko eragileak: administrazioa batetik eta gizarte erakundeak bestetik. Euskal kulturgintza biziberritzeko, une honetan beharrezko dira biak, beharrezkoa da bakoitzaren papera kokatzea, eta beharrezkoa da bi eragile-multzorik horien arteko adostasun prozesu bat.

* *Mondragon Unibertsitateko Huzei fakultateko Sorguneak ikertegiaren 2010eko 'Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak' eta 'Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan' ikerketak ditu oinarri idatzi honek.*